BERMEOKO UDALA

Berdintasuna SARETZEN

# Diagnostikoaren kontrastea eta Berdintasunerako erronkak

elhuyar Aholkularitza



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# ZER EGINGO DUGU?

| | |
|---|---|
| ELKAR EZAGUTZEA | 10min |
| PROZESUAREN AURKEZPENA | 5min |
| MARKO LEGALA | 45min |
| DIAGNOSTIKOAREN KONTRASTATEA | 45min |
| AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK | 45min |
| HURRENGO URRATSAK | 5min |
| SAIOAREN BALORAZIOA | 10min |



# AURKEZPENAK



# PROZESUAREN HELBURUAK

- Gaur egun Bermeon **emakumeen eta gizonen berdintasunaren** egoera nolakoa den aztertzea, **diagnostiko** baten bidez.

- **Berdintasunerako II Plana lantzea.**



# BERMEOKO PLANA LANTZEKO PROZESUA

| Martxoa – Uztaila | Martxoa – Ekaina | Urria | Azaroa – Abendua |
| --- | --- | --- | --- |
| **INFORMAZIO BILKETA** | **ELKARRIZKETAK INKESTAK** | **LANTALDEAK** | **BALORAZIOA KOMUNIKAZIOA** |



# EZAGUTU BEHARREKO HAINBAT DATU ETA KONTZEPTU

# EAE-ko DATU NAGUSIAK

- Emakumeen jarduera-tasa % 49koa da,  eta gizonena % 61ekoa.



# EAE-ko DATU NAGUSIAK

- Emakumeek **3 ordu eta 23** minutu ematen dituzte egunean etxeko lanetan; gizonek, berriz, **ordutebete eta 59** minutu



# EAE-ko DATU NAGUSIAK

- Emakumeek gizonek baino ordu eta erdi gutxiago ematen dute aisian egunean.



# EAE-ko DATU NAGUSIAK

- Emakumeen batez besteko errenta 14.712 eurokoa da; gizonena, berriz, askoz handiagoa: 24.417

- Emakumeen soldata gizonena baino % 25 txikiagoa da, batez beste



# EAE-ko DATU NAGUSIAK

- Alkatetzen % 75tan gizonak daude



# EAE-ko DATU NAGUSIAK (Zifrak 2017 txostena)

- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten finantza-erakundeen eta IBEX-35 enpresen zuzendaritza-kontseiluetan % 26 dira emakumeak



# EAE-ko DATU NAGUSIAK (Zifrak 2017 txostena)

- Gutxi gorabehera, 4.000 emakumek indarkeriaren biktima direla salatzen dute urtero (bikoteak eragindako indarkeria, familia barrukoa edo sexu-indarkeria).



# BERDINTASUNERAKO PLANA

- Neurri multzo ordenatua da, erakundean emakumeen eta gizonen artean tratu eta aukera berdintasuna lortzea, eta sexuagatiko bereizkeria ezabatzea helburu dutenak.
- Plana landu aurretik, egoeraren diagnostikoa egitea beharrezkoa da.
- Planean berdintasunerako helburu zehatzak eta horiek lortzeko hartu beharreko neurriak finkatzen dira.



# EKINTZA POSITIBOA

Denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak dira; beren helburua bizitzaren eremu guztietan sexuagatik izaten diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzea edo murriztea da

- Emakumeen eta gizonen abiapuntua desberdina dela aintzat hartzen dute
- Neutralak diren arauek, emaitza desberdinak eragin ditzakete
- Helburu zehatzak
- Denboran mugatuta



# MAINSTREAMINGA / ZEHARKAKOTASUNA

**Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan, eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak txertatzea**



# BERDINTASUNERAKO MARKO LEGALA

## MARCO LEGAL PARA LA IGUALDAD

# NAZIOARTEAN, EUROPAN ETA ESTATU ESPAINIARREAN

- Nazio Batuen Gutuna (1945)
- Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala (1948)
- Emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzearen aldeko Nazio Batuen Konbentzioa (1979)
- Emakumeei buruzko mundu mailako 4 biltzar (Mexiko 1975, Kopenhagen 1980, Nairobi 1985, Beijing 1995)
- Amsterdamgo Ituna 1997
- Espainiako Konstituzioa, 1978
- 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa
- 1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko eta aurre egiteko Europako hitzarmena (Istanbuleko Hitzarmena), Espainiako Estatuak 2014an berretsia.

# EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOA ETA BIZKAIA

## Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea

Esku-hartze arloak:

- Partaidetza soziopolitikoa
- Kultura eta komunikabideak
- Hezkuntza
- Lana (etxeko lana eta enplegua)
- Osasuna
- Gizarteratzea
- Ingurumena eta etxebizitza
- Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea
- Emakumeen aurkako indarkeria

## Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana, 2016-2019

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA 2018-2021 (EMAKUNDE)

**GOBERNU ONA:**

**Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren txertatzea legitimatzeaz, aitortzeaz eta bultzatzeaz arduratzen da**

**3 jardute ardatz**

**Emakumeen ahalduntzea**
Ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa babestea eta sustatzea

**Ekonomia eta gizarte-antolakuntza eraldatzea**
Eskubideak bermatzeko eredu sozial raunkorragoa eta berdinzaleagoa laguntzeko

**Emakumeen aurkako indarkeria gabeko bizitzak**
Sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa, arreta, berroneratzea eta erakundeen arteko koordinazioa

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA 2018-2021 (EMAKUNDE)

- **VII. PLANAREN BERMEAK:**
  - Benetako konpromiso politikoa.
  - Aurrekontu-baliabideak, giza-baliabideak eta baliabide teknikoak.
  - Gardentasunaren eta herritarrei kontu-ematearen aldeko politika.
  - Herritarren eta emakume-mugimenduen parte-hartzea eta solasaldia, bai eta eragile ekonomiko eta sozialena ere, politiken garapenean.
  - Erantzukidetasuna eta lankidetza, sail eta arlo guztiena eta horietan dauden pertsonena.

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA
## GOBERNU ONERAKO PROGRAMAK

### I KONPROMISO POLITIKOA

- BG1. Berdintasunerako araudia onartzea eta garatzea
- BG2. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontuak gehitzea
- BG3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea
- BG4. Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea

### II BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA

- BG5. Prestakuntza ematea langile eta politikariei

### III GENERO IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN

- BG6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.
- BG7. Hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea
- BG8. Komunikazioan berdintasuna txertatzea
- BG9. Araudian berdintasunaren printzipoa txertatzea
- BG10. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.
- BG11. Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.
- BG12. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA
## GOBERNU ONA

### IV KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA

- BG13. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea

### V PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA

- BG14. Emakumeek eta gizonek zuzendartza-organoetan edo organo pluripertsonaletan ordezkartiza orekatua izan dezaten sustatzea.
- BG15. Kontsultarako eta parte-hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzea.



# ORAIN ARTEKO IBILBIDEAZ





# ORAIN ARTEKO IBILBIDEAZ

- 2008an Bermeoko Emakumeen eta gizonen egoera azaltzen zuen diagnostikoa egin zen.

- Bermeoko Emakumeen eta gizonen Berdintasun aukeren aldeko I. Udal Plana (2010-2013).
  - 11 Lan-ardatz zituen: 20 helburu eta 111 ekintza.

- 2014an I. Udal Planaren ebaluazioa egin zen.
  - Zehaztutako ekintzen garapena eta gauzapena ez zen % 50era iristen.



## ORAIN ARTEKO IBILBIDEAZ

- 2016an emakume elkarteekin eta udal langileekin ariketa. Epe motzean bideragarriak izango ziren proposamenak finkatzeko eta estrategiak artikulatzeko helburuarekin.
- 2017an Berdintasun Teknikaria.
- 2018an Bermeoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Udal Plana osatzeko prozesua abian.





# DIAGNOSTIKOA



# 1.UDALA ETA GOBERNU ONA

- **INFORMAZIOA SORTU ETA KUDEATU**
  - **DATU KUANTITATIBOAK SEXUAREN ARABERA BEREIZITA ez dira jasotzen ez eta aztertzen.**
  - **SISTEMATIZAZIO FALTA.**
  - **INFORMAZIOA JASOTZEKO PROTOKOLORIK EZ.**



# 1.UDALA ETA GOBERNU ONA

- KOMUNIKAZIOA ETA ZABALPENA
  - HIZKERA ETA IRUDI EZ-SEXISTAK BERMATZEKO EZ IRIZPIDERIK EZ ETA JARRAIBIDERIK.
  - KANPO-KOMUNIKAZIOAN ARRETA BEREZIA JARRI BAI BAINA LANGILEAREN SENTSIBILITATEAREN ARABERA GERATZEN DA ASKOTAN.



# 1.UDALA ETA GOBERNU ONA

- **KONTRATAZIO PUBLIKOAK ETA DIRU-LAGUNTZAK**
  - **KLAUSULA SOZIALAK**
    - ENPRESAK BERDINTASUN PLANA IZATEA
    - BERDINTASUN ARLOAN ZIGORRIK EZ IZATEA
    - SEXU-DISKRIMINAZIOA EGITEAGATIK ZEHAPENIK EZ IZATEA
    - 4/2005 LEGEAREN ITZALPEAN DEBEKURIK EZARRITA EZ IZATEA
  - **DIRU-LAGUNTZAK**
    - GENERO-IKUSPEGIA BALDINTZA ORRIETAN (Kirol Sailak soilik)
  - **LEHIAKETAK**
    - EZ DA GENERO-IKUSPEGIA KONTUAN IZATEN



# 1.UDALA ETA GOBERNU ONA

## • GENERO-IKUSPEGIA POLITIKA PUBLIKOETAN

| Sailetan berdintasunarekin lotuta landu diren gaiak | |
|---|---|
| Alkatetza | Komunikazioa |
| Idazkaritza Saila | Ez da ezer egin |
| ATB | Ez dute erantzun |
| Ekonomia, Ogasun, Sustapen eta Turismo Saila | Emakumezkoei zuzenki zuzendutako trebakuntzak bultzatu dira, euren enpleagarritasuna hobetzeko asmoz. Ezer gutxi egin dela adierazi dute. |
| Euskara Saila | Formaren ikuspegitik, hizkera ez-sexista erabiltzeko ahalegina egin da bai euskeraz, zein gaztelaniaz. Andrazkoen eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko diskurtsoa ere landu izan da. Bizentaren Lumak. Erroxape eta Demiku elkarteekin dinamikak. |
| Gazteria Saila | Ikastaro bereziren bat antolatu da andrazkoei zuzenduta; neska-mutil nerabeen bardintasunean oinarritutako heziketa afektibo-sexuala sustatzeko eta euren autonomia zein erantzukizuna bultzatzeko formakuntza eskaini da herriko ikastetxeetan Bermesex zerbitzuaren bitartez; Zinegoak jaialdiaren 'Hedapena' programa birritan ekarri da Bermeora (sexu-aniztasuna) |
| Kultura eta Hezkuntza saila | Inoiz andrazkoen lanak aukeratu dira, lanaren banaketa berdina izan da; Materialen aukeraketan; Erabiltzaileekin jarduera espezifikoekin eta eguneroko interakzioaren bidez. |
| Hirigintza, Obra eta Ingurumen saila | Ezer ere ez |
| Zerbitzu Saila | Ez dute erantzun |
| Beruala S.A. | Ez dute erantzun |
| Gizarte Ongizate Patronatua | Gizonezkoen partaidetza bultzatzea esku-hartze familiarretan, bien erabakia izateko ez soilik amarena; Hezkidetza ikasketa zentroetan eta herri mailan; Kontzientzia eta sentsibilizazio a landu dira; Urtero martxoak 8ko ekintzetan parte-hartzaile eta azaroaren 25ean bultzatzaile;<br>Ezagutza falta adierazi dute. |
| Kirol Patronatua | Ez da egon inoiz desberdintasunik eskainitako kirol ikastaroetan, diru-laguntzetan ez ekintzetan. Beti hartu dira berdin gizonak zein emakumeak. |

# 1.UDALA ETA GOBERNU ONA

- **UDAL-ORDEZKARIAK**




**Osaketa nahiko orekatua da**

- **AUZO ALKATEAK**
  - **9 AUZO % 22 emakumeak eta % 78 gizonak.** Hautaketa prozesuan ez da parekidetasuna bermatzen, oso maskulinizatuta ageri da.

# 1.UDALA ETA GOBERNU ONA

- **INFORMAZIO-BATZORDEAK:**
  - Osaketa oso desorekatua
    - % 33 emakumeak
    - % 67 gizonak
  - 6 Batzorde ez dira parekideak

| | KIDEAK GUZTIRA | |
|---|---|---|
| | Emakumeak | Gizonak |
| Kontu Batzordea | 3 | 4 |
| Hirigintza, Obra eta Ingurumena | 3 | 4 |
| Zerbitzuak | 2 | 6 |
| Lurgintza | 2 | 6 |
| Kultura eta Hezkuntza | 1 | 7 |
| Euskera | 2 | 6 |
| Antolakuntza eta teknologia berriak | 2 | 6 |
| Langileria | 4 | 4 |
| Merkataritza, sustapen eta turismoa | 3 | 4 |
| Partaidetza | 4 | 4 |
| Gazteria | 2 | 6 |
| Guztira | 28 | 57 |

- **BATZORDEBURUAK**: 5 emakume eta 6 gizon. Orekatua ageri da banaketa. Tradizionalki emakumeen eta gizonen esparrutzat ulertu den lan-banaketarekin hausten da.

# 1.UDALA ETA GOBERNU ONA

- **PERTSONAK, BARNE-ANTOLAKETA, FUNTZIONAMENDUA ETA KULTURA**
  - **UDALEKO LANGILEAK:**
    - **333 LANGILE % 58,8 emakumeak.**
      - Udal sailetan % 61,7 gizonak
      - Erakunde Autonomoetan % 85,5 emakumeak
    - **BETETZEN DITUZTEN LANPOSTUAK:**
      - Zerbitzuak eta Udaltzaingoa oso maskulinizatuta
      - Gizarte Ongizate Patronatuan % 90 emakumeak
    - **KATEGORIA BANAKETA:**

| UDALEKO LANGILEAK SEXUA ETA KATEGORIAREN ARABERA | Emakumeak | | Gizonak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| A1 | 7 | **3,6** | 5 | **3,6** | 12 | **3,6** |
| A2 | 43 | **22,0** | 15 | **10,9** | 58 | **17,4** |
| C1 | 16 | **8,2** | 34 | **24,8** | 50 | **15,0** |
| C2 | 74 | **37,9** | 36 | **26,2** | 110 | **33,1** |
| LT | 55 | **28,2** | 47 | **34,3** | 102 | **30,7** |
| Guztira | 195 | **100** | 137 | **100** | 332 | **100** |

# 1.UDALA ETA GOBERNU ONA

- **PERTSONAK, BARNE-ANTOLAKETA, FUNTZIONAMENDUA ETA KULTURA**
  - **LANGILEEN SENTSIBILIZAZIOA BERDINTASUNAREKIKO**
    - LANGILEEN % 15ak erantzun dio galdetegiari. Emakumeen % 19 eta gizonen % 6,5
  - **SEXU JAZARPENA ETA SEXUAGATIKO JAZARPENA**
    - 2011an Gatazkari eta laneko jazarpenari aurre giteko jarduera protokoloa.
    - Ez ditu jazarpen sexista edota genero-bereizkerian oinarri duten jazarpen egoerak aintzat hartzen. Behin bakarrik aplikatu da.
    - Galdetegia erantzun dutenen artean:
      - 2 emakumek sexu-jazarpena pairatu dute enplegu-eremuan eta enplegu-eremuko norbaiten aldetik.
      - 4 emakumek inoiz Udaleko langilea ez den norbaiten eskutik sexu-erasoa jasan dute.
      - Emakumeen % 45 inoiz deseroso sentitu da enplegu-eremuan entzun dituen komentario, txiste matxista edo/eta homofobo-lesbofoboengatik.

# 1.UDALA ETA GOBERNU ONA

- **PERTSONAK, BARNE-ANTOLAKETA, FUNTZIONAMENDUA ETA KULTURA**
  - **BATERAGARRITASUN ERANTZUNKIDEA**
    - LANGILEEN % 31ak arazoak ditu enplegua eta zaintza-ardurak uztartzeko.

| Zailtasunak dituzu zure bizitza pertsonala eta zaintza lanak uztartzeko? | Emakumeak | | Gizonak | | Beste aukera | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| Bai | 12 | 31,6 | 2 | 22,2 | 1 | 100,0 | 15 | 31,3 |
| Ez | 24 | 63,2 | 7 | 77,8 | 0 | 0,0 | 31 | 64,6 |
| ED/EE | 2 | 5,3 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 2 | 4,2 |
| Guztira | 38 | 100,0 | 9 | 100,0 | 1 | 100,0 | 48 | 100,0 |

- BATERAGARRITASUN NEURRIEN ERABILERA: nagusiki emakumeek erabili dituzten azken 5 urteetan.

# 2.BERDINTASUNA

- **Herritarren artean,** emakumeen % 63ak eta gizonen % 15ak uste dute Bermeon berdintasunaren aldeko lana balekoa edo handia dela (galdetegiaren arabera).
- **Langileen % 72ak ez du I. Plana ezagutzen** (galdetegiaren arabera).
- Galdetegia erantzun duten **langileen % 25ak baino ez du jaso berdintasunerako trebakuntza.**
- 2017ko **Udaleko Barne Prestakuntza Planak** ez zuen berdintasuri lotutako erronkarik jaso.
- 2017an **Berdintasunerako teknikariaren lanpostua** egonkortu da.
- Sentsibilizazio-kanpainak antolatu dira: Martxoak 8, Azaroak 25...
- Emakumeen Mahaia sortzeko prozesua.



# 2.BERDINTASUNA

- **GENERO-INDARKERIAREN KONTRAKO LANA**

- 2011an "**Genero indarkeriaren prebentziorako eta Tratu txarrak jasan edota jasaten dituzten emakumeen arretarako udal politiken diagnostikoa**" egin zen.

- 2012an **"Genero indarkeriari buruzko erakunde arteko jarduketa protokoloa"** osatu zen. Eta Koordinazio Mahaia.

- Indarkeria **kasuei jarraipen estuagoa** eta koordinatuagoa egiten zaie, protokoloari esker.

**Bermeon genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasu kopuruaren bilakaera:**

| Urtea | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakume kopurua | 17 | 32 | 33 | 22 | 42 | 50 | 27 |

Udaleko datuak



# 3.DATU SOZIO-DEMOGRAFIKOAK

**Bermeok 17.156 biztanle ditu. % 51 emakumeak, % 49 gizonak.**

**Adin-talde guztietan emakumeen eta gizonen kopuruak nahiko orekatuak dira. 65 urte baino gehiago duten biztanleen artean, emakumeen kopurua handiagoa da gizonena baino.**




Iturria: Udala

# 3.DATU SOZIO-DEMOGRAFIKOAK

- **Jatorriari** dagokionez, **populazioaren % 7,5** Estatu Espainiarretik kanpoko herritarra da.
- Populazio atzerritarraren gehiengoa **Errumaniatik, Senegaletik, Marokotik, Boliviatik eta Argeliatik** dator.

- Orokorrean gizon migratu gehiago badago ere, Hegoamerikatik datozenen artean, emakumeak nagusi dira.

| BERMEOKO POPULAZIOA JATORRIAREN ARABERA, 2018 | | | |
|---|---|---|---|
| | Guztira | Emakumezkoak | Gizonezkoak |
| Estatu Espainiarra | 15.862 | 8.056 | 7.806 |
| Errumania | 530 | 276 | 254 |
| Senegal | 112 | 10 | 102 |
| Maroko | 113 | 47 | 66 |
| Bolivia | 91 | 46 | 45 |
| Argelia | 43 | 19 | 24 |

Iturria: Udala

# 4.ENPLEGUA

- Bermeoko **aktibitate-tasa (2016)** % 45,78koa da.
- **Langabezia-tasa (2017) Emakumeen artean % 13,5 eta gizonen artean % 11,5**

| OKUPAZIO-TASA 2016 | Bermeo | Eskualdea | Bizkaia | EAE |
|---|---|---|---|---|
| 16-64 urte bitarteko populazioa (%) | 43,85 | 46,73 | 47,15 | 48,45 |
| 16-64 urte bitarteko emakumeak (%) | 42.41 | 44,04 | 43,09 | 44,38 |
| 16-64 urte bitarteko gizonak (%) | 45,87 | 50,10 | 52,13 | 53,42 |
| Genero-arrakala | 3,46 | 6,05 | 9,03 | 9,05 |

Iturria: Eustat, **2016**



# 5.HEZKUNTZA




- **Hezkuntza arautua: 6** ikastetxe daude (San Frantzizko Herri Ikastetxea; Sagrado Corazon Ikastetxea; Ikastola; Institutua; Lanbide Hastapena eta Sustapena Ikastegia; HHII-CEPA)
  - Lanbide Heziketan emakumeen presentzia oso eskasa da.

| Lanbide Hastapena eta Sustapena Ikastegiko Ikasleak 2017/2018 | Emakumeak | | Gizonak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| Elektromekanika | 0 | 0,0 | 25 | 100,0 | 25 | 100,0 |
| Elementu Metalikoen Fabrikazioa | 1 | 7,7 | 12 | 92,3 | 13 | 100,0 |
| Sukaldaritza | 2 | 16,7 | 10 | 83,3 | 12 | 100,0 |
| Guztira | 3 | 6,0 | 47 | 94,0 | 50 | 100,0 |

  - Azterketa sakona egiteko datuak faltan.

- **Hezkuntza ez-formala:** Musika Eskola, Ludoteka, Gaztelekua, Euskaltegia, KZgunea.
  - Musika eskolan eta KZGuneko ikastaroetan ere sexu-genero segregazioa handia da.

# 6.EUSKARA

- **Hizkuntz gaitasuna** % 72,2 Euskaldunak, % 15 ia-euskaldunak eta % 12 erdaldunak.
- **Kale-erabilera**: Orokorrean euskararen erabilera jaitsi egin da azken hamarkadetan, eta jaitsiera handiagoa izan da gizonen kasuan emakumeen kasuan baino. **Emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dute euskara etxean eta kalean.**
- Euskararekin lotutako ekimenetan **emakumeen parte-hartzea handiagoa** da.
- Gehiago dira euskara ikasten edo praktikatzen duten emakumeak (Euskaltegia, Berbalagun...)



# 7. KULTURA ETA JAIAK

- **Kultur arloko ikastaroetan** emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzen dute.
- Bermeoko elkarteetako osaera generoaren arabera ez dakigu zein den.
- Elkarteetako zuzendaritzetako kideen artean **emakumeen presentzia eskasa.**
- Jaietako programazioan, azken urteetan, genero-ikuspegia txertatzeko ahalegina egin da.
- Jai Batzordeko osaera nahiko parekidea omen da.



# 8.GIZARTE POLITIKAK

- **Gizarte larrialdietarako laguntzak:** Laguntza-eskaerak ez daude sexuaren arabera bereizita.

- **Adinekoentzat zerbitzu nagusien erabiltzaileen gehiengoa, % 77 emakumeak** dira. Etxebizitza komunitarioan berriz gizonak dira nagusi.

- **Zaintzaileentzako programen erabiltzaileak nagusiki emakumeak dira** (2015ean % 90 emakumeak)



# 9.KIROLA

- Bermeoko kirol-elkarteak oso maskulinizatuta daude. **Zuzendaritzetan % 73,4 baino gehiago gizonak dira.**

- 2017an **Kiroldegiko instalazioetan emakumeak izan ziren gehiengoa** % 62. Baina ikastaroen araberako erabilera datuak falta dira.

- **Eskola-Kirolean** (6-12 urte bitarte)
  - % 42,7 neskak dira.
  - Kirol-jardueraren hautaketa oso desorekatua da, genero-estereotipoen eta rol-sexisten araberakoa.



# 10.OSASUNA

- **2016an Udalak Jarduera fisikoaren sustapen plana diseinatu zuen.**

- **BERMESEX** Sexologia zerbitzua: 2016/2017 ikasturtean sexu hezkuntza esku hartzeak egin ziren ikastetxeetan. Guztira 202 gaztetxok hartu zuten parte, 87 neska eta 115 mutil.



# 11.HIRIGINTZA ETA GARRAIOA

- **HAPO (PGOU):** Azterketa sakonagoa beharko litzateke genero-ikuspegiaren txertatze mailaz.
- **Kale-izendegia**: 3 kale kenduta gainerako kale, enparantza eta eraikin esanguratsuek gizon izenak edo toponimikoak dira.

  Erabakia hartuta: toponimoak edo antzinako kaleen izenak jartzeko.
- **Bermibus.** Zerbitzu hau I.Berdintasun Planean jasotzen zen. Erabiltzaileen datuak segregatu gabe.
- **AuzoTaxia:** Erabiltzaileen datuak segregatu gabe.
- **Eskola-ibilbideak**: Informaziorik ez.





# BERMEOKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANAREN ARDATZAK

**GOBERNU ONA:**

**Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren txertatzea legitimatzeaz, aitortzeaz eta bultzatzeaz arduratzen da**

**3 jardute ardatz**

**Emakumeen ahalduntzea**
Ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa babestea eta sustatzea

**Ekonomia eta gizarte-antolakuntza eraldatzea**
Eskubideak bermatzeko eredu sozial raunkorragoa eta berdinzaleagoa laguntzeko

**Emakumeen aurkako indarkeria gabeko bizitzak**
Sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa, arreta, berroneratzea eta erakundeen arteko koordinazioa


Eskerrik asko!
Edozein zalantza izanez gero:
944668816
j.regueiro@elhuyar.eus
a.ibanez@elhuyar.eus